Arabako Foru Aldundia
Diputación Foral de Álava

ARRASATEKO UDALA
AYUNTAMIENTO DE MONDRAGÓN

**ARABAKO FORU ALDUNDIKO GIZARTE ZERBITZUEN SAILARI ATXIKITAKO GIZARTE ONGIZATERAKO FORU ERAKUNDE AUTONOMOAREN ETA ARRASATEKO UDALAREN (GIPUZKOA) LANKIDETZA HITZARMENAREN LUZAPENA, ARAMAIOKO IBARREAN BIZI DEN PERTSONA BAT "ITURBIDE EGOITZA" ERAKUNDE AUTONOMOAN HARTZEKO.**

Gasteiz, 2016.eko Maiatzaren 10ean.

Alde batetik, Beatriz Artolazabal Albeniz andrea, Gizarte Zerbitzuen Saileko foru diputatua eta Gizarte Ongizaterako Foru Erakundeko Administrazio Kontseiluko lehendakaria.

Bestetik, María Ubarretxena Cid andrea, Arrasateko Udaleko alkatea.

Aldeak beren karguei dagozkien eskudantziak eta eskumenak direla bide agertzen dira eta dokumentu hau izenpetzeko gaitasuna aitortzen diote elkarri, eta hauxe

**ADIERAZTEN DUTE:**

Lehenengoa. Arabako Foru Aldundiaren Gizarte Zerbitzuen Sailari atxikitako Gizarte Ongizaterako Foru Erakunde autonomoa eta Arrasateko Udala, egoitza zerbitzua eskaintzeari dagokionez, elkarlanean ari dira 2000z geroztik. Zerbitzu hori, gaur egun, Aramaioko ibarrean bizi den adineko bati Arrasateko Udalaren menpeko "Iturbide Egoitza" organismo autonomoan egoitza zerbitzua behar izanik hura ematean datza. Horretarako azkeneko hitzarmena 2015eko uztailaren 21ean sinatu da.

**PRÓRROGA DEL CONVENIO DE COLABORACIÓN SUSCRITO ENTRE EL INSTITUTO FORAL DE BIENESTAR SOCIAL, ORGANISMO AUTÓNOMO ADSCRITO AL DEPARTAMENTO DE SERVICIOS SOCIALES DE LA DIPUTACIÓN FORAL DE ÁLAVA Y EL AYUNTAMIENTO DE ARRASATE-MONDRAGÓN (GIPUZKOA), PARA LA PRESTACION DE SERVICIO DE RESIDENCIA, EN SU ORGANISMO AUTÓNOMO "ITURBIDE EGOITZA" A UNA PERSONA RESIDENTE EN EL VALLE DE ARAMAIO.**

Vitoria-Gasteiz, a 10 de mayo de 2016

De una parte, la Ilma. Sra. Dña. Beatriz Artolazabal Albeniz, Diputada de Servicios Sociales y Presidenta del Consejo de Administración del Instituto Foral de Bienestar Social.

De otra, Dña. María Ubarretxena Cid, Alcaldesa del Ayuntamiento de Arrasate-Mondragón

Las partes comparecen en virtud de las atribuciones y competencias propias de sus cargos y se reconocen mutua y recíproca capacidad para la suscripción del presente documento, y

**EXPONEN**

Primero. Que el Instituto Foral de Bienestar Social, Organismo Autónomo adscrito al Departamento de Servicios Sociales de la Diputación de Álava y el Ayuntamiento de Arrasate-Mondragón vienen colaborando desde el año 2000, en la prestación del servicio de residencia dirigido a una persona correspondiente al sector de la población de mayores que necesiten dicho recurso y que sea residente en cualquiera de los municipios del Valle de Aramaio, la cual estará ubicada en la Residencia "Iturbe Egoitza", organismo autónomo dependiente de ese Ayuntamiento, siendo el último de los Convenios suscrito al efecto el de

fecha 21 de julio de 2015.

Bigarrena. Diputatuen Kontseiluaren 2015eko abenduaren 30eko 764/2015 Erabakiaren bidez, nola beharrezkoa den hitzarmena indarrean egotea etenik gabe, luzatu egin da 2016ko ekitaldirako, eta agiri honen bidez gauzatzen da erabaki hori.

Segundo. Que mediante acuerdo 764/2015 del Consejo de Diputados de 30 de diciembre de 2015, dada la necesidad de mantenimiento del funcionamiento del Convenio sin solución de continuidad, se ha procedido a la aprobación de la prórroga del convenio durante el ejercicio 2016, efectuándose mediante el presente documento la concreción de la misma.

Hirugarrena. Aldeak ados daude lankidetza tresna horri eusteko, modurik onena baita programa hori garatu eta jarraipena egiteko 2016ko ekitaldian, bai eta gauzatzeko moduarekin ere. Ondorioz, dokumentu hau sinatzea erabaki dute, honako klausula hauen arabera:

Tercero. Que ambas partes están de acuerdo con el mantenimiento de este instrumento de colaboración como medio idóneo para el desarrollo y seguimiento de este programa durante el ejercicio 2016, así como en los términos en que éste debe substanciarse por lo que acuerdan la suscripción del presente documento que se regirá por las siguientes

## KLAUSULAK

Lehenengoa.- Agiri honen xedea da 2016ko abenduaren 31ra arte luzatzea 2015eko uztailaren 21ean Arabako Foru Aldundiko Gizarte Zerbitzuen Sailari atxikitako Gizarte Ongizaterako Foru Erakundearen eta Arrasateko Udalaren artean izenpetu zen lankidetza hitzarmena, Aramaioko ibarrean bizi den adineko bati Arrasateko Udalaren menpeko "Iturbide Egoitza" organismo autonomoan egoitza zerbitzua behar izanik hura emateko.

Bigarrena.- Gizarte Zerbitzuen Sailak Gizarte Ongizaterako Foru Erakundearen bidez egoitza plazako ordaindu beharreko zenbatekoa Gipuzkoako Foru Aldundiak egoitza handien plazetarako prezio publikoetan dauka ezarrita. Hitzarmen hau sinatzean, prezio hori 90,58 eurotan (BEZa salbuetsita) finkatu da 2016rako, okupatutako plaza bakoitzeko eta eguneko.

## CLÁUSULAS

Primera.- El presente documento tiene por objeto prorrogar hasta el 31 de diciembre de 2016 el convenio de colaboración suscrito el 21 de julio de 2015 entre el Instituto Foral de Bienestar Social, Organismo Autónomo adscrito al Departamento de Servicios Sociales de la Diputación Foral de Álava y el Ayuntamiento de Arrasate-Mondragón, para la prestación del Servicio de Residencia dirigido a una persona correspondiente al sector de población de personas mayores que precise de dicho recurso y que sea residente en cualquiera de los municipios del Valle de Aramaio, la cual será ubicada en la Residencia "Iturbide Egoitza", Organismo autónomo dependiente del Ayuntamiento de Arrasate-Mondragón.

Segunda.- El importe por plaza residencial a abonar por el Departamento de Servicios Sociales a través del Instituto Foral de Bienestar Social, viene determinado por los precios públicos establecidos por la Diputación de Gipuzkoa para las plazas de residencias grandes. A la firma de este convenio este precio ha quedado establecido para el ejercicio 2016 en 90,58 euros/día por plaza ocupada, IVA exento.

Foru Administrazioak hitzarmen hau, luzapenaren babesean, partida honen kontura finantzatuko du: Gizarte Ongizaterako Foru Erakundearen 2016ko aurrekontuaren 80202.0221.227.99.31 "Hitzarmena Arrasateko Udalarekin, Iturbide egoitza". Gehienez ere, HOGEITA HAMAHIRU MILA EHUN ETA BERROGEITA HAMABI EURO ETA HOGEITA ZORTZI ZENTIMO (33.152,28 euro) emango dira.

La financiación del convenio al amparo de esta prórroga será realizada por la Administración Foral con cargo a la partida 80202.0221.227.99.31 "Convenio Ayto. Arrasate Residencia Iturbide" del presupuesto del Instituto Foral de Bienestar Social para el 2016, hasta un máximo de TREINTA Y TRES MIL CIENTO CINCUÉNTA Y DOS EUROS CON VENTIOCHO CÉNTIMOS DE EURO (33.152,28€).

Hirugarrena. Agiri honetan ezarri gabeko guztietarako, aldeek berariaz adierazten dute 2015eko uztailaren 21ean izenpetutako hitzarmenean xedatutakoari lotuko zaizkiola.

Tercera. En todo lo no previsto en el presente documento, las partes se someten expresamente a lo dispuesto en el convenio suscrito el 21 de julio de 2015.

Aldeek, azaldutako guztiarekin ados daudela eta onartzen dutela adierazteko, hitzarmenaren bi ale izenpetzen dituzte idazpuruan adierazitako tokian eta egunean.

Y en prueba de conformidad y aceptación con cuanto queda expresado, las partes firman el presente documento, por duplicado ejemplar, en el lugar y fecha expresados en el encabezamiento.

**Beatriz Artolazabal Albeniz**
Gizarte Zerbitzuen Saileko foru diputatua
Diputada Foral de Servicios Sociales

**María Ubarretxena Cid**
Arrasateko Udaleko alkatea
Alcaldesa del Ayuntamiento de Arrasate-Mondragón

ARRASATEKO UDALA
AYUNTAMIENTO DE MONDRAGON
Alkatetza